

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urriaren 29a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Bera** • Eskulangileak, Bortzirietako produktuak eta karrika animazioa izango dira Lurraren Egunean igandean. **Alaiz kolektiboa** • «Gizartean parte hartzeko beharrezko baliabideak ematen dizkiegu pertsoneri»

## Adinekoei laguntzeko bidea

Bidelagun boluntario taldea zaharrei etxean lagun egiteko, zahar-egoitzetan aisialdirako iharduerak bultzatzeko eta gaixoen zaindariak ordezkatzeko jaio berri da. Nafarroa geroz eta zaharragoa da, eta Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko zonaldea, zaharretan zaharrena. Anitz dira hango zaharrak, eta anitz dira euren beharrak ere. Bortz pertsonak sortu dute Bidelagun eta orain boluntario gehiago hartzeko kanpaina ireki dute.



• JOSU SANTESTEBAN



# Lizarra ●



## Arronitz, Etaiu eta Mirafuentes politenak

Lizarraldeko herri politen eta ederren izendatu berri dituzte Arronitz, Etaiu eta Mirafuentes. Lizarraldeko Patzuergo Turistikoak herri eta eraikin dotoreak saritzeko lehiaketa antolatu du aurten aurreneko aldiz, eta hiru herri horiek saritu dituzte. Arronitzek aurreneko saria jaso du Mendia Ama Birjinaren basilazaren inguruan egindako lanak direla eta. Saria 2.000 euro — 332.772 pezeta — da, eta mendi puntan dagoen basilazara joateko bidexkak eta ingurunea saritu dituzte hain zuzen ere.

## Lekunberri ●

### Folkaren laguntzaz amesteko aukera

ATZO HASI ETA HILAREN 12A arte, hainbat tokitako kultura ezagutzeko aukera eskaintzen du Folk Amestetan musika zikloaren seigarren aldiak. Senegal, Castilla, Huesca eta Euskal Herriko musikak bildu ditu, aurten, dagoeneko izen handiko bihurtzen ari den ziklo horrek. Hasiera batean, Lekunberri eta Barañainek soilik hartzen zuten parte folkaren bidezko amets horietan. Gerora, ordea, San Adrian, Elizondo, Irurtzun eta Castejon gehitu zaizkie. Zizurrek ere parte hartu izan du azken urteetan, baina aurten ez da programazioan sartu.

Udazkena garai egokia delakoan, urteroko tradizio bihurtu nahi dute herri horietako kultur etxeek musika zikloa, eta beronen bidez, herrialde desberdinetako kultura gerturatu era askotako publikoari. Horregatik, gurearekin batera, bestelako musika adierazpenak ekarri nahi izaten dituzte musikaren zentzurik dibertigarriena azalaraziz.

Aurtengo aldian, Afrikako danbor

hotsak entzun ahal izango dira, adibidez. Horretaz arduratuko da Yambar Senegalgo taldea. La Orquestina del Fabirol taldeak, bestalde, Aragoiko aspaldiko musika lantzen du. Instrumentu zahar horretaz gain, beste hainbat ere erabiltzen dituzte, betiere, publiko dantzan jartzeko asmoz. La Bazanca taldea —Gaztela Leoitik dator— judutar musika zabaltzen ari da, eta, horretarako, Paco Diez gitarra jole eta gaitariaren laguntza izango dute.

Lehenengo kontzertua atzo izan zen Barañainen, eta heldu diren bi ostegunetan ere izango da aukerarik bertan. Lekunberri, gaur eta heldu den ostiralean izango dira emanaldiak. Irurtzun eta Elizondon, berriz, asteburu bakar batean bildu dituzte hiru kontzertuak. Elizondon, gaurtik igandea bitartean, eta Irurtzun, bihurtik hasi eta astelehena arte. Denetan ere, 20:00etatik aurrera izango dira ikuskizunak.

→ Urko Aristi

## Barañain ●

### Txotxongilo jaialdiak sei emankizun aurkeztuko ditu

AZAROAREN 10EAN HASITA ETA 21A BITARTE sei txotxongilo emankizun ikusi ahal izango dira herrian; aurten bosgarren aldia izango da. Mari Sorgin, Txitoen istorioak, Kattalin eta Txano

Gorritxu lanak euskaraz ikusi ahal izango dira, Taupada, Gorakada eta Taun Taun taldeen eskutik. Jaialdia- ren barruan, Asiako hego-ekialdeko txotxongilo erakustetak ere milaka

urteko tradizioa eta izpiritualtasun sakona duen arte hori jarriko du ikusgai.

Txotxongilo Jaialdia Nafarroan 1995ean antolatu zen estreinakoz, Udalaren Kultura eta Euskara Arloen eskutik. Ekitaldiak azaroaren 10ean hasiko dira, 18:00etan, Taupada taldeak eskainiko duen Mari Sorgin ikuskizunarekin, non sorgin zital baten atzaparretan eroritako dama ba-

ten pasadizoak kontatzen diren; hura askatuko duen jaunaren zain dago.

Asiako txotxongiloen erakusketari dagokionez, maskarak, itzalak eta hari eta hegaxka txotxongiloak erakusten dira bertan, urtez urte hainbat herritatik jasoak: Thailandia, Malaysia, Indonesia, Nepal eta Birmaniatik.

→ Alberto Barandiaran

## Autopistari ez, lekuko garapenari bai

irulegitik

JOJO BIDART



**L**ema horren inguruan hainbat baxenafatar eta auzokide mobilizatu da, joan den larunbatean, Donibane-Garaziko karriketan. Koloreak dantzan, aurpegi alaiak, zerbait irabazi zela iduri zuen.

Bainan zer irabazi izan ote da?

Baxenafatar gehiengo handi batek hautatu Michel Inchauspe deputatuak manifestaldiaren bezperan jokoaren nahasteko egin deklarazioek ez dituzte jendeak lotsarazi: gero eta kopuru handiagoan auzartzen dira autopista proiektuari ez erraitera.

Baxe Nafarroako hautetsi nagusiaren hitza dudan ezartzea lortua izan da.

Hori baino gehiago ere lortua izan da; belaunaldi ezberdinak elkartzea, ofizio guzietako ordezkarien batzea, abertzale eta naturazale taldeak elgarren lanean harraraztea, barmekaldeko eta kostaldeko jen-

deen hurbiltzea, bai eta ere mugaz gainetik euskaldunen uztartzea.

Elgarretaratze nagusi bat izan da beraz, historia antolatzaileen arabera, lanjerra ekar lezakeen beste nunbaitik etorri proiektu bati ez erraiteko elkartasun berri bat sortu duena.

Azkarren ari den mugimendu hori ez da ezezkotan mugatzen.

Joan den larunbatean zabaldu diren oihaletan eta antolatzaileen ahotik entzun ahal izan dugu LEIAk bere sortzetik agertzen duen beste helburua: lekuko ekonomia, lekuko biziaren iraupena eta garapena sustatzea.

Gizarteak sortzen ahal dituen sarrasketarik inguramena zainduz, hemen bizi diren gizon-emazte eta bereziki gazteen geroa prestatzeko konzertazio ideki baten beharra sendi da.

Ez erraitetik proposamen egiterat urrats zaila izan da, denek egiteko gogoa ez dutena, eztabaidak ere sortuko dituena, bainan ez gaiten zailtasunaz lotsa, kanpotik inposatu nahi dauzkiguten eskematarik ateratzeko eta geroa ahal bezenbat eskuetan ukaiteko bide bakarra baita.

Funtsezko une historikoa izango da baldin badaukagu mobilizatu diren jende multxo guzien energia bateratzen proiektu orokor eta iraunkor baten eraikitzen, beharrezkoak diren zubiak luzatuz belaualdien artean, kosta-barmekalde artean, Ipar eta Hegoaren artean.

Bi Nafarretako LEIA elkarten artean finkatu diren adixkidanzako lokarriak bezalako beste asko sortzeko gaia daitaie proiektu amankomun baten inguruan.

Ainitz irabaz dezakegu bide hortarik.



# Bera • Lurraren Eguna, hamahirugarren

Eskulangileak, Bortzirietako produktuak eta karrika animazioa egun osoan

Igandean egingen da, hamahirugarren Lurraren Eguna, Beran, Gure Txokoa Elkarteak antolaturik. Egun bakarreko Euskal Herriko eskulangintza azoka handienetakoa da, eta, eskulangileak ez ezik, makina bat ekintza ere antolatu dituzte.



Egun bakarreko artisautza azoka handia egingo da Beran, igandean. ● JACOBA MANTEROLA

**O**RAIN 12 URTE HASITAKO besta horrek sustraiak ederki errotuak ditu Beran. Eskulangintza eta nekazaritza produktuen erakusketa du oinarri Lurraren Egunak, eta horren arrimoan makina bat ekitaldi antolatzen dira.

Goizeko 10:00etan hasiko dira ekitaldiak. Tenore horretan, Lizuniagako Igoera Kross Herrikoia korrituko da. Ordu erdi geroago, eskulangileen mahaiak zabalduko dira Alzate karrika osoan. Urtero moduan, eskulangintza mo-

du ugari ikusi ahal izanen da: egurra, larrua, pomadak, beira, oihalak, elikagaiak eta bertzelako makina bat gauza. Denetara 60 eskulangiletik goiti bilduko dira; beraz, Euskal Herrian egiten diren azoken artean, egun bakarrekotan bederen, handienetakoa izanen da, handiena ez bada.

Horrekin batera, 10:30etatik aitzinera, bertzelako

gauza anitz ikusi ahal izanen da. Bortzirietako baserritarren produktuen azoka paratuko da ikusgai, bereziki barazkiena. Gasna eta sagardo lehiaketei hasiera emanen zaie, eta karrikan barna Berako trikitixa taldea, txistulariak, banda eta akordeoilariak ariko dira. Eguerdian, Gure Txokoa dantza taldeko dantzariak ariko dira.

Eguerdian, eskulangileek bazkaltzen duten bitartean erakusketa itxita egonen da. Ondoren, berriz ere eskulangileen lana ikusi ahal izanen da, eta animazioa ugari egingen da. 15:30etatik aitzinera, Zizkuitz txaranga ariko da. Ondotik, bertsolarien txanda etorriko da: Jexux Mari Irazu eta Bittor Elizagoien bertsolariak ariko dira kantuan, sagardo eta gasna lehiaketako sariak banatu aitzinetik. Horren gibeletik, gazta irabazleen enkantea

eginen da.

Arratsalde partean, taloak eta gaztain erreak jan ahal izanen dira, eta, plazan, Irats trikitixa taldearekin eta Maixa ta Ixiarrekin emanen zaio akabera bestari. 19:00etatik aitzinera, Eztegar pilotalekuan, lau t'erdiko kanporaketa jokatu da, eta ondotik Beloki anaiek eta Errandonea anaiek partida jokatu dute.

→ Jon Abril

## Bortziriak

### Ekintza ugari astebururako

LURRAREN EGUNA EZ EZIK, makina bat ekitaldi izanen da asteburuan Bortzirietako herrietan. Gaur bertan, Beran, Gure Txokoa elkarteak antolatuta, Gasherbrum II Bortzirietako espediziokideen diaporama erakutsiko dute 20:00etatik aitzinera, Jarmotenean. Arantzan, kultur egunen baitan, hiesa eta drogak izanen dituzte mintzagai zahar txokoan, tenore berean.

Bihar, larunbata, berriz, Gazte Jokoetako laugarren proba jokatu da Beran. Lesakan, bertzalde, arratsaldeko 18:00etan, Tantirumairu ikastolaren 25. urteurrena dela-eta omenaldia eskainiko zaie lehendabiziko ikasle eta gurasoei, horretarako antolatutako bertso traman. Bortzirietako bertso eskolatik pasatu diren guztien bertsoekin esker ona emanen diote ikastolari, eta, ondotik, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Jon Maia eta Igor Elortza bertso traman ariko dira. Arantzan, arratsaldeko 17:30etan, Marsel magoaren emanaldia izanen da.

Astelehenean, Arantzan Baserritarren Eguna ospatuko da, eta Beran kafe-antzerki zikloari hasiera emanen dio Goizeko Izarra taldeak.

→ Jon Abril



herri aldizkariak  
Edurne Elizondo

## Ikastaroak eta kantu txapelketa

Baserritarremtzat Kudeaketarako Institutu Teknikoak antolatu ikastaroak aztertu ditu **Ttipi-ttapa** aldizkariak azken zenbakian, Joxemanuel Irigoren kazetariak idatzi artikulua bidez: «ITG Formakuntza atalak urteak daramazki jendea trebatzen baserriko ekonomian lagunduko duten hainbat eta hainbat ekitaldi osagarritan. Baserrian bizi den familia osoa baliatzen ahal da formakuntza honetaz, berdina dio laborari edo gauduzale izan. Ikastaldi hauek praktikoak dira, batez ere, eta irakaspen teorikoekin batera, irakatsitako gaiarekin zerikusia duen bisita edo ateraldia ere sartzan da normalki».

«Adin guztietako gizon-emaztekiak animatzen dira ikastaroetan parte hartzera. Eta ageri denez,

bada bat baino gehiago ikastaldi desberdinetan ere apuntatu dena azken urteotan. Izan ere, irudi du baserritik bizi denak garbi ikusi duela profesionalki formatu behar duela, bere lanari probetxu osoa atera nahi baldin badio, bederen. Gaztagintza ikastaroa akitu berria da. Ikastaro honetara urtero animatzen da jende franko. Beritze batzuetan Doneztebeko Juansenea etxean egin bada ere, aurten Iruñean egin da, eta hantxe ikusi genuen Maribel Lastiri, Urdazubiko Etxeleku gasnategiko etxeoandrea. 'Aski interesgarria' atzeman omen du ikastaldia Maribelek».

«Urte osoan eta Nafarroako herri desberdinetan antolatzen dira ikastaldiak. Alternatibak


abeltzaintza tradizionalari izenekoa Donezteben emanen da azaroan, eta beste biak -ARPCPC Autokontrol sistema gasnategietan eta Esneki eta gaztagintza-, Iruñean.

**Ttipi-ttapa-k**, bestalde, Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren berri bildu du kulturari eskainitako tartean. Abenduaren 18an izanen da finala. «Tafalla, Lizarra eta Doneztebe izanen dira aurtengo Euskal Kantu Txapelketak bisitatuko dituen herriak. Kantatzeko ohitura sustatzea eta euskal kantutegia berritzea dira txapelketa honen helburu nagusiak, eta, horretarako, berrikuntza gisara, finaleko saioa CD batean grabatuko da. Txapelketa azaroaren 20an abiatuko da, Tafallako Kultur Etxean».



Baztan aldean pertsona edadetuak laguntzeko  
Bidelagun boluntario taldea sortu da

Bidelagun zaharrei etxean lagun egiteko, zahar-egoitzetan aisialdirako iharduerak bultzatzeko eta gaixoen zaindariak ordezkatzeko jai da. Nafarroa geroz eta zaharragoa da, eta Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko zonaldea, zaharretan zaharrena. Anitz dira hango zaharrak, eta anitz dira euren beharrak. Bortz pertsonak sortu dute Bidelagun eta orain boluntario gehiago hartzeko kanpaina ireki dute.



Bidelagun boluntario taldea zaharrei eta hauen zaindariari gauzak errazteko sortu da.  
● JOSU SANTESTEBAN

# Adineloiei laguntzeko bidea

badira edadetuak zahar-egoitzetan ez daudenak eta laguntza behar dutenak.

## Datuak datu

Boluntario talde hau sortzea aspaldiko ideia da Isidro azaldu duenez: «Otsailean Ana Kariñenak, Osasun Zentrokoak erizainak, erran zidan zaharren behar horiei eratzuteko taldea sortu nahi zuela. Baztan bertzeko batzuk ere ideia berberarekin eta bortzen artean sortu genuen Bidelagun». Taldearen lehen lana izan zen inguruko errealitatea eza-gutzea, Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubi aldean adinekoren kopurua izugarri altua dela ikusi zuten. Nafarroako altuenetarikoa da. %23ra iristen baita. 8.000 biztanleetatik, 1.900 65 urte goitikoak dira 1996ko eroldaren arabera. Eta 75 urtetik goitikoak 900 pasatxo dira. 200 pertsona zaindaria dute etxetik ateratzen ez direnak, udalen etxez etxeko laguntza jasotzen dutenak. 200 pertsona ezinduen horien artean, %30 adineko jendeak zaintzen du. Hortaz, zaindaria zein zaindua zaharrak dira eta zaindaria zahar horrek ere laguntza behar du.

## «Jan eta paseatu»

Ere horretan bi zahar-egoitza daude, biak Elizondon: Benito Menni ospitale zentroa eta Francisco Joaquin de Iriarte

zahar-egoitza. Immaculada Urtasun zahar-egoitza horren zuzendaria da. Hiru aste bertzerik ez daramatza karguan. Berak azaldu duenez, egoitzan 150 zahar daude eta horiendako beharrezko langileak 50 dira. «Hiru bikote eta hamar zahar sartzeko esperoan daude. Erratea gordina bada ere norbait hiltzeko esperoan daude». Elizondoko zahar-egoitzetan ez dago jende gehiagorendako lekurik.

Irene Larramendi 87 urteko arraioztarra arras ongi dago Francisco Joaquin de Iriarte egoitzan. Ongi tratatzen dute bertakoek, gauza arraroak dioten zahar bat izan ezik, baina berak ez dio kasurik egiten. Egunero jan eta paseatu egiten du Irenek. Eskulangintzarik ez du egiten ikusmena nekatu nahi ez duelako. Eskulanak egiten hogei-eren bat emakume daude. Ehoziri lana, josi eta marrastu egiten dute Xorroxin irratia entzuten duten bitartean. Zuzendariak dioenez, gizonak ez dute eskulanik egiten «nahiko burugogorrik» direlako.

Plazido Aleman, 79 urteko iruritarra, sasotan dagoen arren egoitzako medikua-rengana joan da belaunaldian mina duela. Ireneren antzera, Plazido hagitz ongi dago egoitzan egunero «jan eta paseatu». Plazido egunero egiten du ibilbide bera Elizondotik.

Zahar-egoitzetan gustura daude adinekoak, baina egoitzen arduradunen aburuz arreta gehiago behar dute. Hori dela-eta, Bidelagunekoek euren-ana jo zuten egoitzako arduradunek argi utzi zuten zertarako behar zituzten boluntarioak: zaharrei lagun egiteko eta euren solasaldia entzuteko, paseotara eramateko, ospitaletara laguntzeko, aisialdiko iharduerak antolatze, gogoratze arketarako eta eskulangintza tallerretan laguntzeko.

## Boluntario gehiagoren bila

«Bidelagun sortu da eskeintza bat bezela», erran du Isidro. «Guk ez dugu sartu behar inoren etxetan, berek ez badigute guri eskatzen. Ez diegu inolako laguntzarik eskeintzen zaharrei berek ere ez badute bere baimena ematen. Gure lehenbiziko lana da, berek eskatzen badute, familiarekin egotea, edo zahar horrekin egotea eta ados jartzea».

Erran bezala, Bidelagun bortz pertsonak osatzen dute baina boluntario gehiago nahi dituzte. Azaroaren 20a arte boluntarioak biltzeko kanpaina egiten dute. «Epe horretan jendea animatu nahi dugu, bai jubilatuek, bai etxekoandreak, baita gazteak ere, bere izena eman dezaten eta parte har dezaten plataforma berri honetan», dio Isidro. «Ez dakigu zenbat

jende behar dugun. Esperientzia hau bakarrik egiten da hirietan. Herri txikietan eta nekazaritzan guneetan ez da horrelakorik egin. Uste dut honetan aitzindariak garelako. Bide berria egiten ari gara. Eta dena berria da guretzako ere». Taldea sortu baino lehen informazioa biltzen ibili ziren Gipuzkoan eta Iruñean.

Jendearen artean halako prest egote bat somatu dute Bidelagunekoek. Isidro dioenez, jendea prest dago baina jautzia ematea falta zaio. «Bakoitzak erabaki behar du zenbat denbora eskeini nahi duen eskein dezakenez artean. Horretan ere gu ez gara sartzen ahal. Boluntarioa boluntarioa da eta bere gogoz laguntzen du». Bidelagun taldean boluntario izatea ez da soilik zaharrek egiteko. Bertzelako laguntza motak ere eman daitezke. Erraterako, adineko bat Iruñeko ospitalera eramane behar bada han hitzordua duelako medikuren batekin, inork kotxea utz dezake haraino heltzeko. Izan ere, ospitale kontu guziki Iruñean zentralizaturik egoteak ez die sobera lagutzen hiriburuaz kanpoko zaharrei.

Bidelagun hiru mailatan egiten du lan, familian, zahar-egoitzetan eta boluntarioen artean. «Izan ere», esplikatu du Isidro, «ikastaroa emanen diegu boluntarioei formakuntza gisa jakin dezaten zer den bolun-

## Boluntarioak behar dira

Nafarroan edadetuak %80 bere familiarekin bizi da. Hori dela-eta, zahar-egoitzen lana ezinbertzekoa edadetuak zaintzeko. Nafarroa hego Euskal Herriko probintzietan artean zahar gehien duena da. 90.500 nafar 65 urte goitikoak dira eta horietakoen %43k 75 urte baino gehiago du. Zahar hauek, gainera, urte askoz bizko dira, bizi esperantza 80 urteren inguruan baitago. Horrek ondorio ekonomiko zehatzak ditu. Nafarroako zahar-egoitzetan 1.500 bat plaza dago eta 2000 urteko Plan Gerontologikoak plaza horiek %2an handitzea aurreikusten du, batez ere, alzheimerrek jota edo desoreka psikikoak dituztenentzako. 80 urtetik aurrerakoan artean %10 horrelako gaitzak ditu.


Kontuak horrela, atzo inauguratu zen Nafarroako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen lehen biltzarrean agerian utzi dutenez, zaindarien lana hagitz garrantzitsua da. Eta hauen artean, boluntarioek berebiziko garrantzia dute.

Maria Iñarra Nafarroako Gobernuaren Hirugarren Adinekoentzako Programen Bulegoaren arduraduna da. Berak informatu duenez, Bidelagunen antzeko bi talde bertzerik ez dago Foru Erkidegoan. Iruñean Boluntario Geriatriko Frantziskotarra dago eta Urantzian, Melgar izeneko taldea. Bertetik, Indar Armaturen Beteranoen Ermandadea izeneko bat dago adineko militarrei laguntza emateko. Eta Iñarrak dioenez, Avante deituriko Iruñeko taldek batek errenta txiki edadetuak etxetan konponketa lanak egiten ditu dohainik. Gainera, edozein motatako elkarte eta klub anitzek boluntario taldeak dituzte zaharrei laguntzeko. «Jubilatuak elkartean badago adin hauetarako gaztea den jendea, 65 urteko jubilatuek, fisikoki oso egonean daudenak eta bertze edadetuak lagun ditzaketenak», erran du Iñarra. «Asko zabaltzen ari den lana da hau. Batak bertzeari laguntza ematen ez badio hau desastrea da». Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubi bezalako nekazaritza eremuan lan egiten duen Bidelagun bezalako taldeak ez dago. Bidelagun taldean lagundu nahi duenak 948 58 00 94 edo 670 40 69 19 telefonoetara dei dezake.

tario izatea, nor den zaharra, nola hurbildu behar den zaharrenean, eta nola solastu behar den zaharrekina».

Bidelagunekoek boluntarioei laguntzeko

Irene Larramendi hagitz gustura dago Francisco Joaquin de Iriarte zahar-egoitzan, egunero «jan eta paseatu». ● JOSU SANTESTEBAN



borondatea bertzerik ez diete eskatuko. «Eta pertsona eskuzabala eta xaloa izatea», gaineratu du Isidro. «Zaharrak behar du entzuten dion pertsona bat. Berarekin egon behar da eta entzun. Eta maitasun handia eman. Berek behar dute norbait ondoan segurtasuna sentitzea, bakarrik ez daudela sentitzea. Zaharra pertsona bat da, ez da haur bat. Anitzetan tratatzen ditugu haurra balira bezala, eta ez da hala. Zenbat gauza bizi dituen zahar batek. Iduri du bere baitan itxia dagoela, baina ez da horrela, pertsona bat da, anitz bizi izandu du eta errespetu handiarekin tratatu behar dugu». Isidoren iritziz, egungo gizarteak sobera begiratzen dio gaztetasunari eta zahartasunari eta zahartasuna gauza txar bat dela dirudi. «Eta neretako zahartasunean dago bizitzaren jakinduria eta gehiago begiratu beharko genieke jakintsu hauen. Zaharrak dira adinean, baina bihotza geroz eta jakintsuago eta gazteago dute. Beti irekita egoten delako. Kontraerana iduri du baina esperientziak handitzen du bihotza». Esperientzia handiko jakintsu hauen laguntzeko sortu da Bidelagun.

→ Asier Azpilikueta



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Klasiko nafar baten 250. urteurrenean

Milurtekoa ahitzera doan honetan, XVIII. mendean hegoaldean garatu euskal letren errenazimenduan berebiziko garrantzia izan zuen egile nafar batek idatziriko lanak 250. urteurrena betetzen du, eta bere garaian hainbat edizio izanik benetako *best seller* izan bazen ere, egun ezezagun bezain eskuraezin darraikigu.



Gutxi izan dira Mikelestorenaz arduratu diren euskalariak, halaz guztiz, eta Altzola Gerediagak harturiko ardurari esker bereziki, nahikoa dateke euskal idazle honen gainean dugun berri andana Mikelestorenaz nor zen eta bere lana zein muntakoa genuen jakiteko. Jose Antonio Mikelestorenaren Endara bortsiritarra genuen saihets guztietarik ere, Pedro Maria aita eta Etxalarakoa eta Josefa ama Lesakakoa baitzituen, berau 1710. urteko azaroaren 7an sortu eta 1785. urteko urriaren 27an zendu zelarik amaren ber herrian. Gazte zeneko Migel Obiria erretoarek eragindua edo, eliz ikasketak Iruñean hasi zituen, 1729.eko abuztuaren abuztuaren 28an lehenbiziko tonsura egin zioten, 1730.eko ekainaren 2an gradu txikerrak jaso zituen, 1733.eko irailaren 2an epistolakoan ordenatu zen, eta, azkenik, 1734.eko martxoaren 10ean ebanjelikoan, segituan Irungo kapelau joateko. Geroreago, eta Donostiako moja oinutsien bikari eta kapelau aritu ostean, Lesakako erretoareta erdietsi zuen, baita bertako moja agustindarren zuzendaritza izpirituala 1768.az geroz.



abenduaren 10ean. Eskutitzean Mikelestorenaren testigantza jasotzen zuen Mendiburuk, bere buruaren defentsarako, dantzen inguruan lesakarrak zuen aburua argikiro utzirik: «No son mejor tratadas por los curas las danzas en muchos lugares de Navarra (...) Aunque hay tamboril que convida todos los días de fiesta en Lesaca, se puede decir que no ha habido allí danzas estas 28 años por la oposición que les hace don Joseph Antonio Mikelestoren, bien conocido del censor, siendo así que Lesaca es pueblo desparramado, y de cosa de dos mil almas de comunión, y al mismo tiempo es pueblo, donde hay tanta piedad, devoción y frecuencia de sacramentos, como en el lugar mejor arreglado de todo el vascoense».

Guri interesatzen zaigun lanaz aparte, Mikelestorenak Hernaniko mojek argitara eman zuten bere erregelaren edizioaren sarrera idatzi zigun 1768. ean. Langintza honetan, hau da mojen bizimoduaren erreformatzale lanetan, Larramendi bera ibili zitzaigun, eta ez da dudarik honen karietara biak elkarren ondoan izan zirela. Hernaniko moja agustindarren etxean Larramendik bi lehengusina eta bi iloba bazituen, eta harakotu zen batean barruko ohiturek asaldaturik, erregelaren erreforma egiteko proposamen luzatu zien, baita argitara eman 1750. ean. Honen ostean, Larramendiri beste tokietako mojen erregelak gaurkotzeko eskaerak iritsi zitzaizkion, hala nola, Donostiako, Mendaroko, Mutrikuko eta Sorraluzeko moja agustindarrendik, eta Zumaiaiko moja karmeldarrendatik.

Atxek gakizkien orain Mikelestorenaren liburuaren gainekoei. *Zerura nai duenak ar deza keen bide erraza* eskuliburuak bost edizio izan zuen, bostak Iruñean agertu zirelarik. Lehendabizikoa, Martinez liburugilearen ondorengoen etxean ageritzen 1749. urtean, marrazki ugarriz hornitu 114 orrialdeko ale txikerra; bertan Jesusen bihotzaren bederatzirrena dakar, baita zenbait eliz kantu ere: «Gure gusto, gure atseguin, gure Jesus Maytea, cere biotceco suan, erre zazu gure». Altzolak ezagutzen zuen ale bakarra Aranako Kontrastako abatea zen Eusebio Larramendiri erosi zion Astigarragako apezka genuen Feliz Agirrek 1933. urtean, eta azken honi Jesus Zilbeti Azparren botikari iruindarrak berrerosi zion 5.000 pezetatan.

Bigarren edizioa 1751. urtekoa dugu, eta Geronimo Anchuela liburugilearenean atera zen; honen berri Vinsonek eman zigun: *Très pet. In 8, 104 p. Titre encandré de petits fleurons. Titre, p. 1-2; prières du matin, du soir, du jour, du mois, 3-13; de la confession et de la communion, 13-36; manière d'entendre la messe, 37-60; chemin de la croix, 61-79; newaine hau coeur de J'sesus, 80-102; table, 103-104. Je n'ai jamais vu d'autre exemplaire que celui, très médiocre, que je possède.* Alabaina, egun ez omen da honen arrastorik ere geratzen. Hirugarren edizioa Joseph Radaren etxean inprimatu zen 1754. urtean; Altzolak ezagutzen zuen ale osagabe bakarra Zildozko Perutxenan agertu zen, Mendizabalen desamortizazioa zela eta Ezkabarteko herrian apez ziharduen Isidoro Diez de Ultzurrun anai kaputxinotarrak erabiltzen zuena alegia. Azkenik, Altzolak datarik gabeko beste edizio biren berri eman zigun; bata Jose Radaren irarkolan moldetutakoa dugu, eta bestea, berriz, Longas etxean. Azken hau Perez Goienak deskribatu ziguna da, eta aurreko edizioekin erkaturik, zertxobait laburragoa dugu.

Horretan, gutxienez *landa liztor*, *liztortzar*, eta *liztor arrunt* izenak. Izendegi hori moldatu duenak, bistan da, gaztelarako *avispa* hartu du ointzat, eta horren ariora asmatu gero euskarazko simetria. Ez da ordea, hizkuntzen zentzua gure filologoa bezain simetrikoa izandu sekula santan. Euskal usarioan ointzat hartzekoa eta marka bariko izena *liztor* da, gaztelarazko *avispa* markadunari dagokiona hain zuzen; eta gaztelarazko *avispa* marka gabeari, euskal usarioan *liztame* edo *liztafin* izen markaduna dagokio. Beraz, *liztortzar* eta *liztor arrunt*, euskarari bere arima ukatzeaz gain inolako zehaztasun zientifikorik ez dakarkioten erderakeria nahasgarriak besterik ez dira.

Hara orain bi mila urtetik goitiko Bergiliren Georgikon euskaratzean Andima Ibiñagabeitiak diona: «Bada Silari eta Alburno-ko basoen inguruan, lizarrak ostutsu diran tokian, eltxo egalari bat erromatarrek asilus esaten ditena greziarrek berriz aestros (*liztorra*) latza, furrundari garratza, oianetatik artalde osoak ikaraz uxatzen dituen (...) Xomorro ortatik abere ernariak aldenduko dituzu, eguerdiz batez ere, orduan baitira beroarekin kaltegarrien».

Lizar kontu hori nere alde dator, baina izen horiek ongi bideratzeko, berriro ere hizkuntz iturri zaharrak falta ditut. Nere latinezko hiztegi txar honek ordea *asilus* horren pareko *tabano* dakar gaztelaraz, eta hori nik dakidala ez da gure *liztorra*, baizik eta *ezpada*, *ezpara* edo gisako aldaeretan latinezko *vespam* hartatik etxekotu genuen hura, *tabanus* izena lekutuz; *iteulia* (idi eulia) erabili dugu berriz *tabanus bobinus* izendatzeko.

Dena den, liztorrak, erleak bezalatsu, zirikatatu edo amorratu ezkerro, zizta lezake ganadua, baina nekez *ezpada* eta *iteuliak* bezala senez odol bila zuzenean ganadua eraso. Horregatik diot Andimaren itzulpen horretan batela nahasterik.

Euskararen usarioa isilduz, eta gaztelararen kalko huts eginenez asmatuak daude zerrenda

## etorri ahalean

Patziku Perurena



### Liztorrak

UME UMETATIK EZAGUTU ditut liztorra eta lizarra elkarrekin, borda atariko lizar zuloan eta lurpean ere liztor kabiak ikusia nago, eta askotan egondu haien ibilerari adi, baina ez nintzen ohar-tu Ogaitoloko Laxarok lehengoan esan zidan arte: «Liztorrak azala yaten zek lizarrari». Zergatik? Zertarako?... Oroit Itun Zaharreko Manaren Lizarrak; oroit *Fraxinus ornusek* isurtzen duen maná sustantziak Lakoizketak dionaz; etorki berbera lukete. Horra zergatik zurrizten dituen liztorrak ere lizar adaska hezeak: maná delako sustantzia sakarinoso horren bila. Gehiago esan nuke: haren izenaren etimologiak berak lizarrean lituzkela bere erro ezkutua. Halabaina, *frené* *frelon* edo *lizar liztor* bezalako lokerak zentzuzkoak direnez erabakitzeo aztarren biologiko eta hiztegi etimologiko zaharrik ez dut eskura.

Ezak eza, jakin nahiko nuke, halere, OEHk zergatik hobetsi duen *liztor* inolako arrazoirik eman gabe. Atrebentzia eta alferkeria aparte, ez ote UZELkoek hobetsia zuten *liztor* hori ukatze hutsagatik izan? Ez nitzake batere harrituko, filologoak maiz berezko izaten duen espa xikin hori ezaguturik. Deustako balio baleza, bizitua dut *Liztorri* baserria Aranon.

Egia da, UZELk presakako kirtinkeria asko asmatu du euskal lexikoa zehaztekoan, baina, Biologia Izendegian behiala ikusi nuen *liztor* hura ez zitzaidan batere arrotz egin; bai ordea, haren erabilera taxonomikoa. Honatx izen batzuk, elkarren orpoz orpo latinez, frantsesez, gaztelaraz eta euskaraz: «*Polistes Gallicus*, *poliste*, *avispa campestre*, *landa liztor*. *Vespa Crabro*, *frelon*, *avispa*, *liztortzar*; *Vespula Vulgaris*, *guepe vulgaire*, *avispa común*, *liztor arrunt*».

Euskararen usarioa isilduz, eta gaztelararen kalko huts eginenez asmatuak daude zerrenda

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Batzordeburuaren labela

ARDURA DUEN HIZKUNTZAN ZUZENDU ZITZAIZKION. EZ OMEN zuen deus ere entelegatu, ezta behar ere, Bilboko labela aski da normalizaziorako batzordeburua izateko. Esan ere egin zuten. Unibertsitetean, hamaikagarrenez jarri dute galga.



# Josune, Blanca eta Helena

Alaiz kolektiboko kideak

## «Gizartean parte hartzeko baliabideak ematen ditugu»

**Alaiz izeneko kolektiboko kideak dira Josune Perez, Blanca Agirre eta Helena Urdaniz. Alaizek ia berrogei urte egin ditu helduen formakuntza aktiboa lantzen. Euren lana, zabala izanagatik ere, isila da eta ez sobera ezaguna.**

**A**LAIZ LOTURA ERLIJIOSO EDO politikorik gabeko kolektibo independentea da. Pertsonerak oinarrituriko hezkuntzak batzen ditu taldea osatzen duten langile eta boluntario guztiak.

### ■ Noiz sortu zen Alaiz?

HELENA: 1962 edo 1963 urteen iguruan sortu zen. Hastapenetan Acción Catolicaren barnean zegoen. «Centros de cultura y acción femeninas» izena zuen. Gero, urteak pasatu ahala, kolektiboa aldatuz joan zen eta Madrilekin eta Elizarekin zituen loturetatik askatu zen. 1983an, Alaiz elkarte independente bezala erregistratu zen Nafarroako Gobernuaren erregistroan. Orain 50 bat lagun gaude lanean Alaizen, eta gure arteko lotura bakarra formakuntzaren helburua da.

### ■ Zer da Alaiz?

JOSUNE: Irabazi nahirik gabeko elkartea da. Ia 40 urte eman ditugu lanean helduen hezkuntzaren eta animazio soziokulturalaren alde. Orokorrean, helduei zuzentzen gatzazkie; gure zentroetara batez ere emakumeak heltzen dira. Alor ezberdinetako 50 profesional inguru ari dira lanean gurean. Eta gutako gehienak gure lanaren eta gure denbora librearen zati handi bat eskaintzen diogu Alaizi.

HELENA: Guk ulertzen dugu pertsonen hezkuntza modu batean egin behar dela. Uste dugu abiatu behar dugula pertsonak dakienetik, bere erritmoari jarraitu behar diogula eta bere beharrak kontuan hartu behar ditugula. Uste dugu metodologia ak-


tibo eta partizipatibo baten bitartez gehiago ikasten dela betiko erretolikarekin baino. Ez ditugu edukiak soilik irakasten. Gaitasunak lantzen laguntzen dugu, baita trebetasunak ere. Hortaz, edukiak, gaitasunak eta trebetasunak. Horri animazio soziokulturala erraten zaio, pedagogia aktiboa eta partizipatiboa. Gure zentroetan mota horretako formakuntza eskaintzen dugu, pertsonak kritiko izan daitezen, errealitatea hobeki uler dezaten.

BLANCA: Pertsonak hezitzen ditugu bizi diren gizarte egituraren parte har dezaten. Hau zaila da guztiendako, baina batez ere, hezkuntza sistematik at geratu direnendako. Pertsona eman nahi dizkiegu gizartean parte hartzeko behar dituzten baliabideak. Guk beharrezko baliabideak, gaitasunak eta ezagupenak ematen dizkiegu gero eurak bere kabuz ibil daitezen. Izatez, hainbat emakume talde sortu dira kolektibotik pasatu diren emakumeen artean.

### ■ Zergatik etortzen dira batez ere emakumeak?

HELENA: Nik uste dut kontu soziologikoa dela. Formakuntza helburuak, hobetzea, gehiago ikastea eta antzekoak batez ere emakumeei interesatzen zaizkien gauzak dira. Pertsonaren formakuntza integralaren kontuetan emakumeak gehiago dira. Gizonak lan munduan integraturik daude eta aisialdia ez diote formakuntzari eskaintzen.

### ■ Hortaz, Alaiz ez da emakumeei zuzenduriko kolektiboa?



● JOSU SANTESTEBAN

### soslaia

Josune Perez zentroetako koordinatzailea da, psikologoa, eta kolektiboak eskaintzen zuten ikastaro baten bidez sartu zen Alaizen. Blanca Agirrek kanpo proiektuak koordinatzen ditu, pedagogoa eta psikologoa da, eta ezagun batzuen bitartez heldu zen Alaizera. Helena Urdaniz koordinatzaile nagusia da, pedagogoa, eta kurrikuluma bidali eta gero lortu zuen Alaizen lan egitea.

Alaizen kultur zentroetan hiru urteko formakuntza ikastaroak ematen dituzte. Lehen urtean, norbere burua ezagutzera bideratzen dira gaiak. Bigarren urtean bakoitzaren inguruan dagoena ezagutzen da, eta inguruarekin harremanetan jartzeko jarduerak lantzen dira. Eta hirugarrenean partehartze soziala lantzen da. Ikastaroak diruz lagunduta daude. 8.000 pezeta kostatzen da matrikula.

«Beti aurkezten gara gabeziak edo zailtasunak dituzten pertsona laguntzeko programetara», erran du Helenak. «Ez dugu edozer gauza egiten diruaren truke. Ez gara enpresa bat».

BLANCA: Ez, kolektiboa ez zaie emakumeei soilik zuzentzen. Baina, historiagatik, tradizioagatik eta lantzen ditugun gaiengatik, batez ere emakumeak etortzen zaizkigu. Psikologia, soziologia, hezkuntza, historia, literatura emakumei interesatzen zaizkien gauzak dira. Eta, bestetik, gizartean berdintasunean partehartzea bilatzen dugunez, normala da emakumeekin aritzea, kontu horretan egoera txarragoan baitaude emakumeak. Emakumearena gai garrantzitsua da Alaizen, eta errazago iristen gara emakumeengana, interesatzen zaizkien gaietan adituak baikara.

HELENA: Gure helburua gizartea hobetzea da, eta horretarako emakumea gizarteratu egin behar da. Dena dela, geroz eta gizon gehiago etortzen dira gurera. Aldez aurreko jubilazioak direla eta, 55 urteko gizonek denbo-

ra libre dute eta aisialdia euren formakuntzarako profita-tu nahi dute.

### ■ Zuen irakasleak boluntarioak dira.

HELENA: Bai. Beren esparruan profesionalak dira, eta hemen gai zehatzak irakasten dituzte. Baina kontua ez da gaia irakastea soilik. Alaizen metodologia aktiboa da. Hezitzaileak taldearen ardura du, bere erritmoa kontrolatu behar du, bere beharrak, zailtasunak. Hezitzaileak praktika izan behar du metodologia horretan. Ez dira kolektiboan sartzen eta berehala irteten, denbora luze batez egon behar dute metodologia lantzen.

BLANCA: Etortzen diren profesionalak, badakite taldeekin lan egiten, pertsonak abiapuntu bezala hartuta. Hezitzaileak sortzaile izan behar du. Metodologia hori da gure kolektiboaren ezaugarria.

→ Asier Azpilikueta



## Nafar Kronika

Pello Argiñarena

### Arranz, ale-hop!

**A**URTENGO ASTE SANTUAN EGIN zioten proposamena. Emaztearekin luze eta zabal hitz egin ondoren, politikaren uretara berriro jauzi egitea erabaki zuen. Ekainaren 13an noaindarrek Julian Arranz aukeratu zuten herriko alkate, UPNren izenean. Gure protagonistak pozez gainezka heldu zion bere kargu berriari. Hasieratik harreman ona nagusitu zen Herriko Etxeko kideen artean. Are gehiago, alkateak udal ardurak talde ororen artean banatzea erabaki zuenetik, Udaleko kudeantzan norbaitekin lan egitekotan sozialistekin sollik jarduteko agindu zioten, ordea, Diputaziotik. Herriko agintari nagusia bakarrik eta bidegurutzean zegoen: noaindar guztien neurri edo alderdiko buruen beharretara egokitzea eguneroko politika. Ausardiaz beteta, bereari eustea eta aurrera egitea erabaki zuen.

Aurreko goizean, bonbona batek ez-tanda egin zuen bere etxetik gertu. Gertaera horiek aztertu behar zituen plenoaren bezperan, Francisco Javier Ansuategi, gazte susmagarrien izen zerranda besapean hartuta, nerbioak jota zegoen Arranztarren etxera abiatu zen. Biharamunean osoko bilkurak eraso gaitzetsi egin zuen eta gobernadora bi gazte atxilotuz itxura egiten salatu zen. Gazteon errugabetasunaz jabetu ondoren, Noaingo alkateak Miguel Sanz presidenteari egunero kalean gurutzatzen dituen atxilotuen senitartekoak hartzea eskatu zion. Erantzuna Corellarraren neurrikoa izan zen. Bitartean udalkide batzuk zinegotzi kargua utzi dute egunotan.

Julian Arranzek ez du goserik, ezin du lorik egin. Ez du alderdiaren laguntzarik izan. Herriko gazte errugabeek atxiloteta jasan behar izan dute. Taldekideek bakarrik utzi dute. Batzuek salataritzat jotzen dute. Besteek nortasunik gabeko alkatea dela diote. Politikaren bonbonak eskuetan egin dío ez-tanda alkateari, Julian Arranz. Zauriak etxean sendatzea erabaki du azkenean. Periodikoak ere ez dituela erosten entzun dut.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Tafalla:** Abesbatzen Nazioarteko V. Erakustaldiaren barnean, honakoak ariko dira egunotan: Portugalgo Olisipo (gaur), Frantziako La Maitrise de Seine-Maritime taldea (bihar) eta Errusiako Vesna (etzi). Kontzertu guztiak San Pedro elizan izanen dira, 20:00etan.
- **Elizondo:** Gaur, 20:00etan, Bide Ertzean taldea izanen da Kultur Etxean.
- **Etzarri-Aranatz:** Gaur, Alemaniako Studio Vocale Karlsruhe abesbatzak kantaldia eskainiko du Kultur Etxean, arratsaldeko zortzietan.
- **Iruñea:** Bihar, 23:00etan, Coque Malla izanen da Artsaian.
- **Erronkari:** Igandean, Anje Duhalderen kantaldia izanen da 20:30etan, Erronkariko kiroldegian. Sarrera doakoa da.

### BERTSOLARIAK

- **Arantza:** Etzi, igandearekin, Jexux Mari Irazu eta Bittor Elizagoien izanen dira herriko plazan, 17:00etan.
- **Iruñea:** Bertsoaroa 99ren barnean, asteartean, Jexux Mari Irazuk eta Sebastian Lizasok bertso saio berezia egingo dute Erraldioen Txokoa, 20:00etan. Gero, 01:00ean, Uztarrozeko frontoian gaupasa izanen da, Kebenko euskara taldeak antolatuturik.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** Bihar, *Elmer elefantea* haurrendako antzezlanak jokatuko du La Luna taldeak 12:00etan, Gaiarre antzokian.
- **Ororbia:** Bihar, 20:00etan, Truke taldeak *Kontu kontari* ikuskizuna taularatuko du Kontzejuaren Etxean.
- **Igantzi:** Igandean, Kollins Clown taldeak *Kiriko oilarra* eta *Hiru txerrikumeak* antzezlanak jokatuko ditu frontoialan, 12:30etan.

► **Iruñea:** Mofa e Befa taldeak *Para ser exactos* lana eskainiko du igandean, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

► **Ituren:** Kollins Clown taldeak *Txitxirio txiki* eta *Txanogorritxu* lanak oholtzaratuko ditu Aurtitz auzoko frontoian astelehenean, 18:00etan.

► **Iruñea:** Esteve y Ponce bikoteak *Los hermanos pirrakas en Nemequitépá* antzezlanak aurkeztuko dute astelehenean,

20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

### HITZALDIAK

- **Urzainki:** Gaur, 21:00etan, Euskal Herriko joko tradizionalen inguruan solastatuko dira udaletxean, diapositiben laguntza izanen duen *Jolasen Altxorra* izenburuko hitzaldiaren barnean.
- **Izaba:** Bihar, larunbatarekin,

Nafarroan euskarak duen egoerari buruzko mahai-ingurua egingen dute Izabako museoan, 20:00etan.

### DANTZALDIAK

- **Donamaria:** Igandean, 11:45etan, Larratz taldea izanen da herriko plazan.
- **Aurpitz:** Harizti taldea izanen da, igandean frontoian, 12:45etan.

## Arestiren liburutegia

Castelao nos



A céga que canta para mantel-os fillos.

Haurrak mantentzeagatik kantatzen duen itsua.